

## ARIKETAK

### 4. ALDA ITZAZU ONDOKO ESALDIAK, -T(Z)EA, -T(Z)EKO formak erabiliz.

Adibidez:

Lagunek **onar zaitzaten** nahi baduzu, atseginago izan behar duzu.

⇒ Lagunek **onartzea** nahi baduzu, atseginago izan behar duzu.


1. Hiru hilabete falta dira langile fijo egin nazaten.
2. Esango diet zu besteen aurrean jar zaitzaten.
3. Nork eman dizu baimena gu horrela erabil gaitzazun?
4. Etxeko bezala har zintzatedan eskatu zidan zuen amak eta horrelaxe egin dut.
5. Etxera eraman gintzaten eskatu nien.
6. Autoan eraman nazaten eskatuko diet.
7. Bakean utz zaitzatela esango diet.
8. Lehenbailen har nazala esango diot.
9. Botikarik gabe senda gaitzan nahi dugu guk ere.
10. Mikelek zu ere ikus zintzan nahi nuen.

### 5. BETE HUTSUNEAK, subjuntiboa erabiliz.

Adibidez:

⇒ Zer egin behar dut zuen artean **onar nazazuen**

- |   |           |
|---|-----------|
|   | (onar)    |
| 1. Lanpostu segurua genuen; oker handiren bat egin behar genuen kalera ...  | (bota)    |
| 2. Nola nahi duzu botika horrek ... , ez baduzu hartzen?                    | (senda)   |
| 3. Edozer gauza egiteko prest nengoan, bere artean ...                      | (har)     |
| 4. Lagunek bere etxera ... nahi baduzu, gonbida itzazu aurrena zuk zeurera. | (gonbida) |
| 5. Ez nuen etortzeko gogo handirik, baina Mikelek ... etorri naiz.          | (ezagu)   |
| 6. Luisak ... joan zinen festara; Luisa ez zen, ordea, festan agertu.       | (ikus)    |
| 7. Aizue, panpinak bezala ... ez dugu nahi.                                 | (erabil)  |
| 8. Ez zineten entrenamenduetara joaten eta taldean ... nahi zenuen!         | (sar)     |
| 9. Autoan ... nahi nuen, baina ezin izan zuen autoa hondatua baitzuen.      | (eraman)  |
| 10. Kale erditik goaz, denak ondo ...                                       | (ikus)    |



## SUBJUNTIBOA V: ZER-NORI

Forma

a. Orainaldia		b. Iragana	
	DAN		DAN
	ZUN		ZUN
	ON		ON
DAKizki		ZEKizki	
	GUN		GUN
	ZUEN		ZUEN
	EN		EN

**Oharra:** indikatiboko zai(zki)- ➡ daki(zki)-

Adibidez:

➡ *Dena ondo atera dakizun nahi dut.* (que te salga)  
 ➡ *Bisitara joan zekion eskatu zion.* (que le fuera)

## ARIKETAK

6. *BETE HUTSUNEAK, ZER-NORI subjuntiboko formak erabiliz.*

Adibidez:

➡ *Haurrari ezer txarrik gerta ez **dakion** nahi dut.*

1. Semeren bat bila joan ... nahi izaten zuen aitak.
2. Semeren bat bila joan ... nahi izaten du aitak.
3. Boltsa barruan eramaten ditut giltzak, gal ez ...
4. Boltsa barruan eramaten nituen giltzak, gal ez ...
5. Eskuzorroak jartzen ditugu, eskuak zikin ez ...
6. Eskuzorroak jartzen genituen, eskuak zikin ez ...
7. Egun guztiak berdinak gerta ez ..., planak aldatzea komeni zaizue.
8. Kontuz ibil, nahi ez duzun zerbait gerta ez ...
9. Hozkailuan sartzen dugu fruta, ustel ez ... (guri)
10. Futboleko aritzeko ken betaurrekoak, honda... nahi ez baduzu.

7. *EUSKARA ITZAZU ONDOKO ESALDIAK, subjuntiboa erabiliz.*

1. Quiero que estéis tranquilos.
2. ¡Que no os pase nada!
3. Pon aquí la radio, para que la oigamos mejor.
4. Le he pedido que me lleven a casa.
5. Les pidieron que entraran.
6. Querían que lo hiciéramos todo en un día.
7. Nos pidieron que les dejáramos entrar.
8. No quería que lo vieran así.
9. Les dejé mi coche para que llegaran antes.
10. Le di dinero para que comprara lo que quisiera.
11. Le pedí que no me dijera mentiras.
12. Para que te aproveche (te haga bien) tienes que comer despacio.
13. ¡Que no hagan eso!
14. Conviene que llueva.
15. Nos dejaron un paraguas, para que no nos mojáramos.